# Denbora-

## 1 Lotu bikoteak

Etxeko abereak zenbatzen aritu da Markel. Egin kalkuluak animalia bakoitzeko zenbat buru dituen jakiteko. Ondoren, batu kopuru bereko animaliak.




## 2 Osatu hitzak

Sugea ez, baina hizkiak dantzan jartzen ditu aztiak. Osatu nahi adina hitz saskitik ateratako hizkiekin.

A E T K L A S





-pasak

Erantzunak:
**1.-** Ardia eta untxia, behia eta txakurra, zaldia eta katua eta txerria eta ahatea. **4.-**b.

## 3 Labirintoa

Olagarroa eta itsas izarra elkarrekin jolasean ari ziren, olatu bortitzak banatu dituen arte. Zein bide hartu behar dute elkartzeko?






## 4 Itzalak

Kobazuloko iluntasuna apurtzeko, kandela piztu du Xanek. Itzal hauetatik zein da kandelarena?

# Jolasa

## Sumoa

Ikusiko zenituzten inoiz telebistan japoniar morroskoak aurrez aurre norgehiagokan. Sumoa egiten arituko ziren. Ea zer moduz moldatzen zareten Japoniako kirol honekin!



**1.** Marraztu lurrean hiru metroko diametroa duen biribil bat.

**2.** Egin bikoteak. Lagun bakoitzaren pisua eta altuera gogoan izan behar dira bikoteak egiteko garaian.

**3.** Bi jokalariek biribilaren barruan sartu behar dute.

**4.** Elkar agurtu ostean, laguna lurrera botatzen saiatu beharko du jokalari bakoitzak. Kontuz ibili inori minik eman gabe! Ezin da inor jo! Pentsatu ongi egin beharreko mugimenduak jokalaria lurrera botatzeko.

**5.** Lurrera erortzen den edo biribiletik kanpo irteten den jokalaria kanporatua geratuko da.

**6.** Pixkanaka-pixkanaka, jokalariak kanporatzen joango dira, azken jokalaria bakarrik geratzen den arte. Horixe izango da lehiaketako irabazlea.